

## » zuzendariari

**BERRIAk** irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Tarte bikoitzera idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta BERRIAk mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen eta herria adierazita: BERRIA, Martin Ugalde Kultur Parkea, 30012 Andoain. [iritzia@berria.info](mailto:iritzia@berria.info)

## Euskaltzaindiaren beste lotsagabekeria batzuk

Jose Luis Alvarez Enperantza, Txillardegia, Euskaltzaindiaren gustura ikusiko nuke ohorezko euskaltzain bezala ere, baina berak nahi ez badu, eta, dirudienez, bera ere euskaltzain oso bezala nahi izan ez badute, errespetatzeko da bere erabakia. Txillardegia, miresteko beti, tinko eta zintzo bere jarretetan. Politikari ere bai, alajaina.

Orain Euskaltzaindiaren beste lotsagabekeria batzuk, ikaragarri batez, ohartarazi nahi dut: Miren Azkarate sailburu, Patxi Goenaga Hizkuntza Politikarako sailburuorde, biak euskaltzain osoak, eta ez nolana hikoak gainera, akademian pisu nabarmena duten horietakoak baizik. Nola kudeatu dituzte diru publikoak? Euskaltzaindiari laguntzak nabarmen igoz, baita beste instituzio batzuek (Nafarroako Gobernuak eta Espainiakoak) kendutakoak kompensatzearaino eta gehiago ere.

Bitartean, nola daukate arduradun horiek euskaltzaindiaren beste sektore edo elkarte funtsezko batzuk? AEK eta beste euskaltegiak, komunikabideak (Topagu-

nekoak eta gainerakoak), Kontseilua eta Hizkuntz Behatokia, euskalduntzen ari diren enpresak... Horiek denak diruz urri, behar dituzten laguntzak ezin lorturik, eta kobratzen dituztenak oso berant kobratuta, sekulako arazoak sortzeraino. Azkenik, ezta okurririte ere Nafarroatik ez dituzten laguntzak eskatzea!

Faboritismo hori noiz arte?

Xabier Perez  
Donostia

## Gabon kantetan ere bai

Gabonak gainean ditugu. Urtea ziztu bizian pasatu da, eta oraindik bihorzean daukat jaz Majalen Lujanbiok BERRIAN idatzi zuen zutabe bat. *Jai(h)otzak* zen bere tirulua eta han galdera bat egiten zigun: «Oraindik Hator, hator *mutil* etxera kantatuko dute alaba kartzelan duten familietan?».

Galdera horren harira nire proposamena. Hemendik aurrera «Hator, hator lagun etxera» kanta dezagun, urrutia dauden lagunak, neskek eta mutilak, etxean nahi ditugu.

Maribel Garzia  
Hondarribia

## Athletic, justizia

Joan den larunbatean, Santanderko Racingen aurkako partiduan, jokalaririk Gurpegi animatu nahian, ondorengo zioen kamiseta batekin irten ziren zelaira: «Gurpegi, Justicia». Nik gustura aldaruko nuke mezua, beste honekin: «Euskarari ere justizia». Non ziren Etxeberria, Tiko, Iraola... eta Padilla eta Lamikiz bera ere? Ez al da ba Athletic euskaldunekin bakarrik jokatzeko duen taldea? Bai Euskarari. Gurpegi kasuan, justizia!

Pello Ezkurra  
Donostia

## Miren Azkarateri

Azken hilabeteotan nahikoa da norbaitek puzkar bat botatzea, zuk aitzakia hartuta Ezker Abertzaleari zuena ez den beste edozein bortizkeria mota gaitzetsi behar duela esan behar. Alegia, hemen ditugun arazoak konpontzeko modu bakarrari (mahai batean bildu eta hitz egin) baldintzak eta oztipoak jartzeko.

Azken asteotan izan diren atxilotu eta tortura testigantzen inguruan oraindik ezer esateko zaudenean, hara non agertzen

zaren tortura hitza erabiliz, oraindik nork egina den argi ez dagoen ekintza baten inguruan. Horrek ez nau harritzen, ezaguna ere egiten zait kantua. Martxoaren 11n ere Ezker Abertzalea jarri zenuten jo puntuan, herritarrei lasaitasuna eskatu eta gauzak pixka bat argitu zitezten itxaron beharrean.

Gero, bi abertzale erailak izan ziren. Zuek, noski, ez daukate erantzukizunik.

Baina onartzen ez dizudana bortizkeria mota guztiak zaku berean sartu nahi izatea da. ETAk nire sendiko kide bat nire etxe azpian bertan erailteza zer den badakit. Zuen bortizkeria ere gerturik ezagutu dudala esan dezaket, eta poltsa berean sartu edo parekatu daitezkeen bi bortizkeria mota ez direla esaten dizut. Ez baitago zuena bezain bortizkeria gogorrago, egunerokoago, zikinago eta miserabileagorik. Ez dago estatu boteretsuen bortizkeria gandi dezakeen beste bortizkeria motarik.

Eta zu, Miren, boterea, armak eta dirua dauden aldean zaude.

Beraz, ez etorri etika eta moral irakasgaiak ematen.

Haritz Larrañaga  
Zarauz

## » larrepetit

## Proposamena



XUXUE APAOLAZA

Errepideak ez dira guztiak zuzenak. Kotxez zoaz eta datorren bihurguneari begira zure buruari galdetu diozu ea baden arrazoirik bolantea jiratzeko. Minutu pare bat falta da kurbara heltzeko.

Egunko dezepzio txiki guztiak bizkarrean, «zuek edo ni» pentsatu duzu. «Mundutarrak edo ni». Nahiko zenueke konponbidea hain bortitza ez izatea, baina sinetsi, gehiegi dira banan bana begietara begiratuko.

Ez zaizu bolantea jiratzeko arrazoirik bururatu, ezta hala? Jiratu egin duzu bolantea hala ere; errazagoa baita jiratzeko ez jiratzeko baino. Oraindik belduraren abantaila du bizitzak.

Egokiena egiten ari zarela pentsatzen duzu, ez? Gutxienez etxera iritsi; gero lasaigo neurtuko duzula zenbar bihurgune gainditzeko gai zaren. Giza-joa.

Gainera isiltasunak ez du laguntzen, ezta hala? Gutxitan laguntzen du. Musika jarrita ere zuk isiltasuna entzuten jarraituko duzu maita. Eskizofreniak anfitriatuko zaitu azkenean ez baituzu jakingo nor zaren; ni, edo zu lauso hori. Zimurak plantatzeko kremen bidez hilko zaituzte, edo kreditu txartelarekin ebaki beharko dituzte esku-muturreko zainak edo... auskalo, ez dakizu bakeak zenbat modutan hil zaitzakeen; jateko gogoa kenduko dizute beharbada, gosez hilko zara agian hozkailuaren aurrean.

Begiak itxita saia zaitzete. Begiak itxi eta bolantea ez jiratzeko.

## » galde-eskeak



ROGE BLASCO  
KAZETARIA

**Levando anclas irratsaioko urteak errepasatuta, ezagututakoetatik zein nabarmenduko, eta zein da kontatu dituzten bidaiarik zoragarriena?**

Andoni Baleztena

Pertsona asko eta handiak igaro dira irratsaiotik, eta haiek kontatutako bidaiak guztiak zoragarriak iruditu zaizkit. Aukeratzeko zaila egiten zait, beraz. Dena den, baten bat aipatzekotan Jurgi Villarrek motorrik gabeko belaontzi batean mundu osoari emandako itzulia aipatuko nuke. Jose Lope de Castillo adiskidea ere ezin ahaztzeko, ingeniari zana lanak aldo batera utzi, eta 1980an Ameriketara joan zen; orain, oihanean bizi da. Pare bat aipatu ditut, baina elkarrizketatu ditudan guztiak miresten ditut.

Bidali zure galderak [iritzia@berria.info](mailto:iritzia@berria.info) helbide elektronikora.

## » www.berria.info

**Nolako neurriak indartu behar dira emakumeen kontrako indarkeria saihesteko?**

Gizarte heziketaren arlokoak	% 27
Zigor arlokoak	% 2
Bi arloetakoak	% 71

Jakina hezkuntza alorreko neurriak hartu behar direla, baina bitxia iruditzen zait halakoak emakumeak jipoitzen eta hiltzen dituztenekin aipatzea, eta ez trafikatzaila, torturatzaile, lapur eta halakoekin. Horiek jizgorria lehenesten da aurrena, alegia giltzapean jartzea, baina, harritzekoak, emakumeak jasaten dirugun delituetan orduantxe sortzen zaigu gizarteko ikuspegi hezitzaile. Hezkuntza bai, baina goitik beharago aldatzeko ez dagoen bitartean, jipoitzaileak espetze zuloa! ☎ meri

Konponbidea errudunak zigortzean baino gehiago erabiltzen ditugun eredu matxistak aldatzean datzala uste dut. ☎ Nitz

## » hitz beste

## Drama

ANJEL LERTXUNDI

Vendetta kutsua hartzen zion atzoko berripaper honen burtsa-kronikak BBVAren operazioari. Bat nator. Ez, ez dakit deus ekonomiaz, baina ulertzen ez ditudan gora-beheretan mugitzea, nire sudu narraztaileak fidatzen naiz, eta, usainduta-koaren arabera, mendekua oinarri narraztaile duen drama eder baten aurrean gaude.

BBVA gotorlekuaren zaindaria jarri zutenetik, Francisco Gonzalez-bilaua da bultzatzaile, heroia beste hainbatentzat. Maitale popularra zuen orduan, maitale sozialista bat atera zaio orain bihotzaren bidera. Drama sentimentalaren erdian, Sacyr gaizkile etorri-berriak gotorlekua setiatu du ustekabean. Maitale popular saminduek bultzatu du Sacyr ala sozialista maitemindu berriak hartaratu du? Hori jakin gabe nekez har dezake neurri-rik gotorlekua eraiki zuen Neguri tribuak.

Honaino orainokoa. Nire sena narraztaileak dio dramak luze joko duela.